EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
LEHENDAKARITZA
Komunikaziorako Zuzendaritza
PRESIDENCIA
Dirección de Comunicación

# GOBERNU BILERA
## Prentsa-Txostena
## Gai nagusiak

# CONSEJO DE GOBIERNO
## Dossier de Prensa
## Asuntos destacados

**Vitoria-Gasteiz, 2016ko apirilak 5**

**Vitoria-Gasteiz, 5 de abril de 2016**

Navarra, 2 – 01007 VITORIA-GASTEIZ
Tef. 945 017 972 – e-mail: prentsa@euskadi.eus

Administración Pública y Justicia

## EL GOBIERNO APRUEBA EL DECRETO QUE DEVUELVE AL FUNCIONARIADO VASCO LOS DÍAS LIBRES POR ANTIGÜEDAD SUPRIMIDOS POR EL GOBIERNO ESPAÑOL EN 2012

- **El personal público tendrá dos días libres adicionales al cumplir el sexto trienio y un día más adicional por cada trienio cumplido a partir del octavo.**
- **Esta medida tiene un impacto presupestario de alrededor de 8 millones de euros y efectos retroactivos a 1 de enero de 2016.**
- **Este decreto es un paso más del Gobierno vasco en su compromiso de paliar las consecuencias de los sucesivos recortes del Gobierno español en materia de función pública desde el año 2010.**

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy el *"Decreto por el que se establece el permiso por asuntos particulares por antigüedad del personal funcionario, estatutario y laboral de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma Vasca".* Con este decreto, el conjunto del personal funcionario recupera la totalidad de días libres por antigüedad, conocidos como "canosos", suprimidos por normativa básica del Gobierno español en 2012.

El decreto aprobado hoy establece que las 70.000 personas que trabajan en la Administración Pública vasca tendrán derecho a disfrutar de: *"2 días adicionales al cumplir el sexto trienio, incrementándose en un día adicional por cada trienio cumplido, a partir del octavo"*. Esta medida tendrá un impacto económico que rondará los 8 millones de euros. La mayoría se invertirá en contrataciones para sustituciones del personal de Osakidetza (5,5 millones de euros) y en horas gratificadas por llamamiento en día libre del personal de la Ertzaintza (2,5 millones de euros). Se hará efectiva desde el 1 de enero de 2016. Afecta concretamente a:

- Personal funcionario de la Administración General y sus Organismos Autónomos.
- Personal funcionario Docente no Universitario de la Comunidad Autónoma de Euskadi.
- Personal de la Ertzaintza.
- Personal de Osakidetza/Servicio Vasco de Salud.
- Personal funcionario de la Administración de Justicia en la Comunidad Autónoma de Euskadi, en el marco de la normativa que le es de aplicación.
- Personal laboral de la Administración General y sus Organismos Autónomos.
- Personal laboral Docente y Educativo del Departamento de Educación, Política Lingüística y Cultura.
- Personal laboral del Departamento de Educación, Política Lingüística y Cultura.
- Personal laboral de Religión dependiente del Departamento de Educación, Política Lingüística y Cultura.
- Personal laboral del Departamento de Seguridad y de la Academia Vasca de Policía y Emergencias.

## 108 MILLONES DE EUROS

Esta decisión es un paso más en el compromiso del Gobierno vasco con el conjunto del personal público y se suma a otras decisiones adoptadas en los últimos meses para paliar los las consecuencias de los recortes en materia de función pública decretados por el Gobierno español desde el año 2010. Este conjunto de medidas han tenido un impacto presupuestario en 2016 de cerca de 108 millones de euros:

- Subida del salario en un 1%
- Abono de otro 25% de la paga extraordinaria retirada en 2012 por el Gobierno español.
- Recuperación de las 35 horas semanales.
- Recuperación de 6 días libres por asuntos particulares o "moscosos".

**Herri Administrazioa eta Justizia**

## JAURLARITZAK ONARTU DU EUSKAL FUNTZIONARIOEI ESPAINIAKO GOBERNUAK 2012AN KENDUTAKO ANTZINATASUNAGATIKO EGUN LIBREAK ITZULTZEKO DEKRETUA

- **Langile publikoek bi egun libre gehiago izango dituzte seigarren hirurtekoa betetzean eta beste egun bat gehiago zortzigarrenetik aurrerako hirurtekoen truke.**
- **Neurri horrek 8 milioi euro inguruko eragina izango du aurrekontuetan eta atzeraeraginez aplikatuko da 2016eko urtarrilaren 1etik aurrera.**
- **Dekretu horrekin beste urrats eman du Eusko Jaurlaritzak Espainiako gobernuak 2010etik aurrera funtzio publikoan egindako ondoz ondoko murrizketen ondorioak arintzeko ahaleginean.**

Gobernu-kontseiluak gaur onartu du Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioko funtzionarioen, estatutupeko langileen eta lan-kontratudun langileen antzinatasunagatiko norbere kontuetarako baimena ezartzen duen Dekretua. Dekretu horren bitartez, funtzionarioek antzinatasunagatiko egun libre guztiak berreskuratuko dituzte, «buruzuri» deituriko horiek, Espainiako gobernuak 2012 oinarrizko araudi bidez ezabatu zituenak.

Gaur onartutako dekretuaren arabera, euskal herri-administrazioan lan egiten duten 70.000 pertsonek honako eskubide hau izango dituzte: *«Bi egun libre gehiago izango dituzte seigarren hirurtekoa betetzean eta beste egun bat gehiago zortzigarrenetik aurrerako hirurtekoen truke».* Neurri horrek 8 milioi euro inguruko eragin ekonomikoa izango du. Kopuru horren zati handiena (5,5 milioi euro) Osakidetzan ordezko langileak kontratatzera bideratuko da, eta Ertzaintzako langileei egun libreetan lan eginarazteagatiko ordu-sarietara (2,5 milioi euro). 2016eko urtarrilaren 1etik aurrera izango du eragina. Zehazki, honako hauei eragingo die:

- Administrazio orokorreko eta horren erakunde autonomoetako funtzionarioak.
- Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatetik kanpoko irakasle funtzionarioak.
- Ertzaintzako langileak.
- Osakidetza/Euskal Osasun Zerbitzuko langileak.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia-administrazioko funtzionarioak, aplikagarri zaien araudiaren barnean.
- Administrazio orokorreko eta horren erakunde autonomoetako lan-kontratudun langileak.
- Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko irakaskuntzako eta hezkuntzako lan-kontratudun langileak.
- Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko lan-kontratudun langileak.
- Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren mendeko Erlijioko lan-kontratudunak.
- Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako eta Segurtasun Saileko lan-kontratudun langileak.

## 108 MILIOI EURO

Erabaki hau beste urrats bat da Eusko Jaurlaritzako langile publikoekin hartutako konpromisoa betetzeko. Azken hilabeteetan hartutako erabakien jarraipena da, eta Espainiako gobernuak 2010etik aurrera funtzio publikoan agindutako murrizketen ondorioak arintzea du xede. Neurri horiek guztiek 108 milioi euroko eragina izan dute aurrekontuan:

- % 1eko soldata-igoera.
- Espainiako gobernuak 2012an erretiratutako aparteko ordainsariaren % 25 ordaintzea.
- 35 lanorduko astea berrezartzea.
- Norbere kontuetarako 6 egun libre berreskuratzea.